

EMARI EKOLOGIKOEN ERREGIMENA EZARTZEKO HITZARTZE PROZESUA

**Kontsulta publikoaren eta parte-hartze aktiboaren
eranskina**

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa

- EAEko Barne Arroen Eremua -

2018KO EKAINA

Agencia Vasca del Agua / Uraren Euskal Agentzia



Aurkibidea

1.	SARRERA	1
2.	HITZARTZE PROZESUA.....	2
2.1	HITZARTZE PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA.....	2
2.2	HITZARTZE PROZESUAREN FASEAK.....	2
3.	KONTSULTA PUBLIKO ETA PARTE-HARTZE AKTIBOKO PROZESUEN EGITURA OROKORRA ...	4
4.	BURUTUTAKO EKINTZAK	5
4.1	KONTSULTA PUBLIKOA	5
4.2	PARTE-HARTZE AKTIBOA.....	6
5.	KONTSULTA PUBLIKOAN ETA PARTE-HARTZE AKTIBOAN ESKURATUTAKO EMAITZAK	8
5.1	KONTSULTA PUBLIKOA (A ETA B TALDEAK)	8
5.2	PARTE-HARTZE AKTIBOA (B TALDEA).....	8
6.	KONTSULTA PUBLIKO ETA PARTE-HARTZE AKTIBOKO FASEEK HITZARMEN PROZESUAN ERAGINDAKO ALDAKETAK	9
6.1	KONTSULTA PUBLIKOA	9
6.2	PARTE-HARTZE AKTIBOA.....	9
7.	ONDORIOAK	10
I.	ERANSKINA. KONTSULTA PUBLIKOA.....	I
II.	ERANSKINA. PARTE-HARTZE AKTIBOA	XV

Taulen aurkibidea

1. taula. Ibaizabal UHn kontsulta publikorako ezarritako aldia.	5
2. taula. Ibaizabal UHko ingurumen-arloko organo eskuduna.....	6
3. taula. Ibaizabal Unitate Hidrologikoan Hitzartze Prozesua (A taldea) amaitzeko Ebazpena.	6
4. taula. Ibaizabal UHko Hitzartze Prozesuaren parte-hartze aktiboko fasean burututako ekintza nagusiak.....	7
5. taula. Ibaizabal UHko Hitzartze Prozesuaren esparruan eginiko kontsulta publikoaren fasean jasotako iradokizun edo alegazioak.	8

Irudien aurkibidea

1. irudia. EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuan eman beharreko urratsak	3
2. irudia. Hitzartze Prozesuko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko mailak.....	4

Akronimoak

Sigla	Deskribapena
BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala
KKH	Kantauriko Konfederazio Hidrografikoa
EBA	EAEko Barne Arroak
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia
DH	Demarkazio Hidrografikoa
PHJ	Plangintza Hidrologikorako Jarraibideak
PH	Plan Hidrologikoa
KEDPH	Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa
EEE	Emari Ekologikoen Erregimena
400/2013 ED	Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretua, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duena
PHE	Plangintza Hidrologikoaren Erregelamendua
UH	Unitate Hidrologikoa
URA	Uraren Euskal Agentzia

1. Sarrera

Dokumentu honen xedea, emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren barnean, Ibaizabal Unitate Hidrologikoko (UH) Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroen Eremuan egin diren **kontsulta publikoko eta parte-hartze aktiboko** prozesuak deskribatzea da.

Hitzartze Prozesua **Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa** (aurrerantzean KEDPH) **onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15. artikuluan, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduan (PHE) eta Plangintza Hidrologikorako Jarraibidetan (PHJ)** ezarritakoaren arabera garatu da.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoa (DH) demarkazio hidrografikoen lurralde-eremuak mugatzen dituen otsailaren 2ko 125/2007 Errege Dekretuko – 29/2011 Errege Dekretuak aldatutakoa – 3.2 artikuluan dago zehaztuta. Eremu honetan, alde batetik, **Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Arroak (EBA)** sartzen dira. Bertako eskumena, uraren arloan, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Uraren Euskal Agentziaren (URA) bitartez. Bestetik, erkidego arteko arroak daude eta hauen eskumena Estatuko Administrazio Orokorrario dagokio, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren (KKH) bitartez. Dokumentu honek EBA-etan burutu den prozesuaz soilik dihardu.

Dokumentu honen egitura zazpi kapitulu eta bi eranskinetan banatuta dago. Sarrerako kapitulu honen ondoren, **bigarren eta hirugarren kapituluetan** EAEko Barne Arroetan garatutako Hitzartze Prozesuaren deskribapena laburbiltzen da.

Ondoren, **laugarren, bosgarren eta seigarren kapituluetan**, Ibaizabal Unitate Hidrologikoko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuak eta lortutako emaitzak zehazten dira. Azkenik, **zazpigarren kapituluan**, aipatutako UHrentzat, prozesu hauen ondoriak laburtzen dira.

Ibaizabal UHko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuen emaitzazko dokumentazio guztia **I. eta II. Eranskinetan** atxikitu da.

2. Hitzartze Prozesua

2.1 Hitzartze Prozesuaren deskribapen orokorra

Hitzartze Prozesua EAeko Barne Arroen Eremu guztira hedatu da, unitate hidrologiko bakoitza banaka landuz. Era berean, ustiapen-sistemen bitartez beren artean nolabaiteko konexioren bat duten unitateen arteko interakzioak ere aztertu dira.

EAeko Barne Arroen Eremuan 12 unitate hidrologiko existitzen dira. Alde batetik, Oka, Urola, Oiartzun, Lea, Artibai, Butroe, Barbadun eta Deba, Euskal Autonomia Erkidego barruan kokatzen direnak osorik, eta, bestetik, Urumea, Oria, Ibaizabal eta Bidasoa, autonomia erkidego mugakideren batera hedatzen direnak.

Ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren (aurrerantzean 400/2013 ED), hau da, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, **Hitzartze Prozesu** honen **helburua, indarrean dauden aprobetxamenduetan emari ekologikoak ezartzea** izan da.

Emari ekologikoen erregimena (EEE) ezartzeko, PHJko 3.4. atalean zehaztutako faseak jarraitu dira. Erabilitako metodologiaren deskribapena eta horretarako eginiko azterlanak URaren web orrian (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/>) publikoaren eskura jarritako "[Dibulgazio-dokumentua](#)" delakoan kontsulta daitezke.

Hitzartze Prozesua 2013ko ekainaren 9an indarrean zeuden, beren klausulen barruan, berariaz, Planean ezarritako emari ekologikoen erregimena (EEE) betetzeko aurreikuspenik ez zuten eta, *a priori*, eskura zegoen informazioarekin, eskubidea iraungitzeko, berritzeko edo oinarrizko ezaugarriak aldatzeko espedienterik ireki behar ez zitzaizkien emakideen titularrekin egin da.

Prozesu honek orain existitzen diren erabilerak, eskaerak, berorien emakida-erregimena eta jardunbide egokiak hartu ditu aintzat. Lehenik eta behin, **parte-hartze publikoko** prozesu bat garatu da, informazio eta kontsulta publikoa sustatuz. Ondoren, eta Administrazio Hidrauliko honen erabakiz, EEE errespetatzeak uraren erabileraren mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen ur-aprobetxamenduen kasuan, **parte-hartze aktiboko** prozesu bat burutu da.

2.2 Hitzartze Prozesuaren faseak

EAeko Barne Arroen Eremuan indarrean dauden aprobetxamenduetan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua 1. irudian agertzen diren faseak jarraituz burutu da.

Fase horietan eginiko azterlan eta azterketa guztiak xehetasunez ezagutzeko URaren web orrian publikoaren eskura jarritako "[Dibulgazio-dokumentua](#)" kontsulta daiteke.

1. URRATSA URAREN ESKUBIDEEN EMAKIDEI BURUZKO INFORMAZIOA KONTSULTATzea ETA HAUTATzea	<ul style="list-style-type: none">• INDIRREAN DAUDEN APROBETXAMENDUAK IDENTIFIKATzea• HITZARTU BEHARREKO APROBETXAMENDUAK HAUTATzea• APROBETXAMENDUAK TALDEKATzea UNITATE HIDROLOGIKOEN ARABERA
2. URRATSA APROBETXAMENDUEN EZAUGARRIAK ETA PLAN HIDROLOGIKOAREN INFORMAZIOA AZTERTzea	<ul style="list-style-type: none">• EREMU BABESTUEN ERREGISTROAREN AZTERKETA ETA PLAN HIDROLOGIKOKO BALIABIDE ETA ESKAEREN ARTEKO BALANTzea• ESKUBIDEAREN TITULUEN DATU ADMINISTRATIBO ETA JURIDIKOEN AZTERKETA (EEEari BURUZKO KLAUSULEN BERRIKUSPENA)• PLAN HIDROLOGIKOAREN INFORMAZIOA GEHITzea (UR MASA, HARGUNEAK ZER TARTETAN KOKATZEN DIREN, EREMU BABESTUAK)
3. URRATSA EEEren HIDROLOGIA- ETA INGURUMEN- OSOTASUNAREN AZTERKETA ETA EZARKETAREN ERAGIN TEKNIKO, EKONOMIKOA ETA SOZIALA	<ul style="list-style-type: none">• BALIABIDE/ESKAERA SIMULAZIO EREDUEN AZTERKETA• EEEren HIDROLOGIA ETA INGURUMEN OSOTASUNAREN AZTERKETA ETA EEE EZARTZEAREN BALIZKO ERAGINENA• APROBETXAMENDUEN SAILKAPENA (A TALDEA ETA B TALDEA) HAUTATZE IRIZPIDEAK APLIKATZEAREN BITARTEZ
4. URRATSA INFORMAZIOA	<ul style="list-style-type: none">• HITZARTZE PROZESUAREN INFORMAZIOA INTERESDUNEN ESKURA JARTzea HAINBAT BITARTEKO ERABILITA: WEBGUNEA, POSTA OFIZIALA, URA-REN BULEGOAK, ...
5. URRATSA KONTSULTA PUBLIKOA	<ul style="list-style-type: none">• KONTSULTA PUBLIKOA IREKITZEAREN ARGITALPENA UNITATE HIDROLOGIKO BAKOITZEAN• HILABETEKO KONTSULTA PUBLIKOA• ALEGAZIOAK JASOTzea
6. URRATSA ALEGAZIOAK AZTERTzea ETA BEHIN BETIKO PROPOSAMENA A TALDERAKO	<ul style="list-style-type: none">• ALEGAZIOEN AZTERKETA (A TALDEA ETA B TALDEA)• BEHIN BETIKO PROPOSAMENA PRESTATzea A TALDERAKO
7. URRATSA PARTE-HARTZE AKTIBOA (B TALDEA)	<ul style="list-style-type: none">• APROBETXAMENDUEN TITULARREKIN BILERAK• ETA, KASUA HALA DENEAN, PROTOKOLOAK SINATzea
8. URRATSA ALEGAZIOAK ETA ANALISIAK; BEHIN BETIKO PROPOSAMENA B TALDERAKO	<ul style="list-style-type: none">• ALEGAZIO BERRIAK AURKEZtea (BILERAK AMAITU ETA HILABETEZ) ETA AZTERTzea• BEHIN BETIKO PROPOSAMENA PRESTATzea B TALDERAKO


1. irudia. EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuan eman beharreko urratsak

Jarraian, EAEko Barne Arroen Eremuan Hitzartze Prozesuaren barruan burututako kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuak sakontasun osoz deskribatzen dira.

3. Kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko prozesuen egitura orokorra

Arestian nabarmendu den bezala, emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren harira egindako azterlan guztiekin derrigorrezkoa zen parte-hartze publikoko prozesu bat burutu da, informazio eta kontsulta publikoa sustatuz (ikus 2. irudia).

Era berean, B taldeko aprobetxamenduen kasuan, parte-hartze aktiboko prozesu bat ere garatu da, emari ekologikoen eta ur-erabileren arteko bateragarritasuna lortzeko bidean adostasun gehiago erdiesten lagundu duena. B taldeko aprobetxamendu horien kasuan, *a priori*, emari ekologikoen erregimena errespetatzeak, uraren erabileran mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen.



2. irudia. Hitzartze Prozesuko kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko mailak.

Parte-hartze aktiboaren maila honetan, B taldeko aprobetxamenduen titularrekin zenbait bilera egin dira, eta beraien xedea, ahal den neurrian, emari ekologikoen erregimena ezartzeko helburuarekin, akordio desberdinetara iristea izan da (emakidetako emarien malgutasuna, ezarketa planaren barruan gauzatu beharreko jarduerak, obrak egiteko gehieneko epeak, etab.). Horretarako, hainbat proposamen aztertu dira, betiere kontuan izanik, ez bakarrik emakida-erregimena, baizik eta aprobetxamenduen gaur egungo ur-erabilerak eta eskaerak, eta bereziki, jardunbide egokiak.

Azken helburua, plangintza hidrológicoan zehaztutako emari ekologikoen erregimena ezartzea izan da, ahalik eta adostasun handienarekin.

4. Burututako ekintzak

4.1 Kontsulta publikoa

Gaur egungo erabilerei buruzko informazioa behin identifikatu, hautatu eta aztertu ondoren, eta aprobetxamenduak A eta B taldeetan sailkatu ostean, parte-hartze publikoari eman zitzaion hasiera, beroren lehen maila, hau da, **informazio maila** abian jarritz.

Honela, URaren web orriaren bitartez (<http://www.uragentzia.euskadi.eus/>), ondorengo informazioa publikoaren eskura jarri zen:

- Dibulgazio-dokumentua, EAEko Barne Arroen Eremuan emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuari buruzko informazioa jasotzen zuena.
- Unitate hidrologiko bakoitzean burutu beharreko Hitzartze Prozesuaren ezaugarriei buruzko berariazko informazioa jasotzen zuen dokumentua, eranskin banatan, Hitzartze Prozesuaren barne zeuden aprobetxamenduak jasotzen zituen (A eta B taldeak).
- Azterlan-eremuan Hitzartze Prozesuaren barruan indarrean zeuden aprobetxamenduen emakida-informazioa.
- Azterlan-eremuko emari ekologikoen erregimenen mapak, ibai-tarte eta ur-masaren arabera.
- Hainbat motatako informazioen kontsulta espaziala ahalbidetzen zuen GIS ikusgailua, zehatzago esanda, PHren Araudian aurreikusitako interpolazio prozeduraren bitartez (400/2013 ED, 13.4. art.) ur-masa bateko puntu batean emari ekologikoen erregimena zehaztea ahalbidetzen zuena.

Web orriaren eta URAK erabiltzen dituen beste hainbat bitarteko elektronikoren bitartez (twitter, Irekia, posta elektronikoa) unean uneko informazioa argitaratu zen emari ekologikoak ezartzeko Hitzartze Prozesuaren garapenari buruz.

Ibaizabal Unitate Hidrologikoaren kasuan, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2015eko azaroaren 16ko Ebazpenaren bitartez (BAOn, azterletaren xede den UHn sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URaren web orrian argitaratutakoa), hilabeteko epea ireki zen interesdunek unitate hidrologiko honetan zehaztutako Hitzartze Prozesuaren inguruan egoki irizten zituzten alegazioak edo iradokizunak aurkeztu zitzaizten. 1. taulan dokumentu honen xede den eremuan **kontsulta publikorako** ezarritako aldia erakusten da.

Unitate Hidrologikoa	Kontsulta publikoa irekitzeko Ebazpenaren data	Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren esteka
Ibaizabal	2015/11/16	BAO. 233. zk., 2015/12/03

1. taula. Ibaizabal UHn kontsulta publikorako ezarritako aldia.

Gainera, Hitzartze Prozesuaren barruan zeuden Ibaizabal UHko hainbat aprobetxamendu Natura 2000 Sarearen edo Espezie Mehatxatuen Interes Berezikotako Eremuen barruan kokatzen direnez, 2. taulan ageri den bezala, ingurumen-arloko organo eskudunari, kontsulta publikoko prozesuari zegokion informazio guztia helarazi zitzaion (ikus **IA Eranskina**).

Unitate Hidrologikoa	Informazioa helarazitako data	Arloko organo eskuduna
Ibaizabal	2015/12/03	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)

2. taula. Ibaizabal UHko ingurumen-arloko organo eskuduna

Behin kontsulta publikoa amaituta eta herritarren iritzia kontuan hartzeko asmoz, jasotako alegazioak/iradokizunak aztertu ziren eta horien berri eman zen (ikus 5.1 atala eta I. Eranskina). Ibaizabal UHn eragina izan zezaketen alderdiak kontuan hartuz, beharrezko zuzenketak egin ziren, unitate honetan EEE ezartzeko Hitzartze Prozesuaren behin betiko dokumentua eginez A taldeko aprobetxamenduentzat.

Azkenik, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2016ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren bitartez, Ibaizabal Unitate Hidrologikoko dokumentua onetsi zen, bertako A taldeko aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanez. Aipatutako Ebazpena BAOn (ikus 3. taula), azterketaren xede den UHn sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratu zen.

Unitate Hidrologikoa	Behin betiko Ebazpenaren data	Aldizkari Ofizialeko iragarkiaren esteka
Ibaizabal	2016/01/19	BAO. 21. zk., 2016/02/02

3. taula. Ibaizabal Unitate Hidrologikoan Hitzartze Prozesua (A taldea) amaitzeko Ebazpena.

Amaitzeko, A taldeko aprobetxamenduen titularrei bete beharreko emari ekologikoen erregimenak jakinarazi zitzaizkien.

4.2 Parte-hartze aktiboa

B taldeko aprobetxamenduen kasuan, *a priori*, emari ekologikoen erregimena errespetatzeak, uraren erabileran mugaketa esanguratsua eragin zezakeela aurreikusten zen; hori dela eta, ur-aprobetxamendu horiek izan zitezkeen ingurumen-helburuak betetzeko garaian eragin handiena izan zezaketeenak. Horregatik, emakida hauen titularrekin **parte-hartze aktiboko** prozesu bat garatu zen.

4. taulan **Ibaizabal UHn B taldean** sartu ziren 4 aprobetxamendu ageri dira, hasiera batean parte-hartze aktiboko prozesuaren xede izateko proposatu zirenak.

Lehenik eta behin, Hitzartze Prozesuarekin loturik eskuragarri zegoen informazio guztia aztertu zen, errotarritza-erabilerarako ziren hiru aprobetxamenduen kasuan, emari ekologikoen erregimena ezartzeak uraren erabileran mugaketarik eragingo ez zuela ondorioztatuz. Hala, aprobetxamendu hauek A taldean txertatu ziren eta titularrei egoera honen berri eman zitzaien.

B taldeko gainerako aprobetxamendu bakarraren kasuan (industria-erabilera eta hiri-hornidura), azterlan espezifiko bat egin zen, Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoan ezarritako EEEen ezarpenak aprobetxamenduaren erabileran mugaketa esanguratsurik eragingo ez zuela ondorioztatuz. Geroago, aprobetxamendu honen **titularrekin bilera** bat egin zen, ondorioztatutakoa jakinarazteko helburuarekin. Gainera, hilabeteko epea eman zitzaien iruditzen zitzaizkien alegazioak aurkeztu zitzaizkien. Behin epea amaituta, aprobetxamenduaren titularrei hargunean errespetatu beharreko emari ekologikoen erregimena jakinarazi zitzaien.

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA								
Zk.	Espedientearen erreferentzia	Erabilera	Uraren berariazko azterlanaren hasierako ondorioak	Parte-hartze aktiboaren hasiera-data	Jasotako alegazioak	Bidalitako erantzuna	Lortutako akordioa	Parte-hartze aktiboaren amaiera-data
1	A-B-2011-0761	Errotaritza	Bateragarria (B taldetik A taldera pasatzea)	---	---	---	---	---
2	A-B-2011-0759	Errotaritza	Bateragarria (B taldetik A taldera pasatzea)	---	---	---	---	---
3	A-B-2011-0567	Errotaritza	Bateragarria (B taldetik A taldera pasatzea)	---	---	---	---	---
4	A-B-2011-0559	Industria eta hiri-hornidura	Bateragarria	2016/07/14	Ez	Ez	Ez dagokio	2016/09/14

4. taula. Ibaizabal UHko Hitzartze Prozesuaren parte-hartze aktiboko fasean burututako ekintza nagusiak.

5. Kontsulta publikoan eta parte-hartze aktiboan eskuratutako emaitzak

5.1 Kontsulta publikoa (A eta B taldeak)

Arestian nabarmendu den bezala, informazio eta kontsulta publikoko aldiak amaitzean, EAeko Barne Arroen Eremuan garatutako emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesua zela eta, hainbat idatzi jaso ziren Uraren Euskal Agentzian. Horietako batek dokumentu honen xede den Ibaizabal UHko aprobetxamendu edo alderdiei egiten zien erreferentzia.

5. taulan aipatutako alegazio edo iradokizunaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira, baita URAk idatzi horri emandako erantzunaren irteera-data ere.

Zk.	Alegatzailea	Espedientearen erreferentzia	UH	Alegazioaren sarrera-data	Alegazioaren irteera-data
1	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)	---	Ibaizabal	2016/02/12	2016/06/15

5. taula. Ibaizabal UHko Hitzartze Prozesuaren esparruan eginiko kontsulta publikoaren fasean jasotako iradokizun edo alegazioak.

IB Eranskinean 5. taulan aipatzen den idatziaren inguruko dokumentazio guztia erantsi da. **IC Eranskinean**, aldiz, jasotako idatzi honen laburpena egin da, baita bidalitako erantzunarena ere.

5.2 Parte-hartze aktiboa (B taldea)

B taldean mantendu zen aprobetxamendu bakarraren kasuan, A-B-2011-0559 erreferentziaduna (industria-erabilera eta hiri-hornidura), eskuragarri zegoen informazio guztia berrikusi eta EEEn ezarpenak gaur egungo ur-erabileran izen zezakeen eragina aztertu ondoren, emari ekologikoak eta ur-erabilerak bateragarriak zirela egiaztatu zen. Geroago, aprobetxamendu honen titularrekin bilera bat egin zen, ondorioztatutakoa jakinarazteko helburuarekin. Gainera, hilabeteko epea eman zitzairen iruditzen zitzaizkien alegazioak aurkezte aldera. Behin epea amaituta, aprobetxamenduaren titularrei hargunean errespetatu beharreko emari ekologikoen erregimena jakinarazi zitzairen.

IIA Eranskinean aipatutako aprobetxamenduen kasuan burututako parte-hartze aktiboko fase hau laburbiltzen da.

6. Kontsulta publiko eta parte-hartze aktiboko faseek Hitzarmen Prozesuan eragindako aldaketak

6.1 Kontsulta publikoa

Kontsulta publikoko prozesuan Ibaizabal UHrekin erlazionatuta dauden alegazio edo iradokizunak aztertu ditu Agentzia honek. Orokorrean, jasotako idatzi bakarra zehaztazunez aztertu ondoren, Hitzartze Prozesu honen esparruan Bisoï Europarra Kudeatzeko Planean ezarritako arauak kontuan hartzeko eskakizuna egiten dela esan daiteke. Plan horren arabera, ur-masa desberdinak (Nerbioi eta Ibaizabal ibaien goi-arroak) Interes Bereziko Eremu bezala katalogatuta daude.

Aipaturiko idatzia aztertu ostean, eskuragarri dagoen informazio kartografikoaren arabera, Hitzartze Prozesu honen xede den Ibaizabal UHko EAEko Barne Arroen Eremuan, bisoï europarraren Interes Bereziko Eremurik ez dagoela ondorioztatu da, hala, alegatzaileari erantzuna eman. Ondorioz, aldaketarik egin gabe, dokumentua eta A taldeko aprobetxamenduen behin betiko zerrenda onetsi da.

Arestian esan bezala, IB Eranskinean jasotako alegazio edo iradokizunaren testu osoa aurki daiteke, baita emandako erantzunarena ere. IC Eranskinean, aldiz, idatzi hauen guztien laburpena egin da.

6.2 Parte-hartze aktiboa

Ibaizabal UHn hasieran B taldean txertatutako aprobetxamenduen inguruko informazio guztia aztertu ondoren, horietako 3 A taldera pasatu dira. Ondorioz, EEE ezartzeko Hitzartze Prozesuaren harira Ibaizabal UHn eginiko dokumentuan, espediente hauek II. Eranskinetik I. Eranskinera pasatu dira.

7. Ondorioak

Ibaizabal Unitate Hidrologikoan emari ekologikoen erregimena ezartzeko garatutako Hitzartze Prozesuaren harira kontsulta publikora ateratako dokumentuan aprobetxamenduak A eta B taldeetan sailkatuta zeudenez, kontsulta publikoaren ondoren, parte-hartze aktiboko prozesu bat garatu da.

Kontsulta publikoko fasea amaitu ostean, Ibaizabal UHn eragina izan zezakeen alegazio edo iradokizun bakarra jaso da. Hau aztertu eta erantzuna bidali ondoren, **Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren 2016ko urtarrilaren 19ko Ebazpenaren** bitartez, unitate hidrologiko honetako dokumentua onetsi da, bertako A taldeko ur-aprobetxamenduetan Hitzartze Prozesua amaitutzat emanez. Aipatutako Ebazpena 2016ko otsailaren 2an Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 21. zenbakian, xede den eremuan sartzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratu da.

Parte-hartze aktiboko prozesuan bilera bat egin da Ibaizabal UHn B taldean sartutako aprobetxamendu bakarraren titularrekin, KEDPHn ezarritako EEerekin duen bateragarritasuna azaltzeko asmoz. Era berean, hilabeteko epea eman zaie iruditzen zaizkien alegazio edo idatziak aurkeztu ditzaten.

Amaitzeko, Uraren Euskal Agentziako zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bitartez, Ibaizabal UHn emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze Prozesuaren behin betiko dokumentua onetsiko da, Ebazpen hau BAOn, unitate honetan kokatzen diren udalerrietako iragarki-oholetan eta URAREN web orrian argitaratuz.

I. Eranskina. Kotsulta publikoa

Ibaizabal UHko Hitzartze Prozesuko kotsulta publikoko fasean jasotako alegazioaren edo iradokizunaren azterketa egin ondoren, alegatzaileari erantzun bat eman zaio. Eranskin honek informazio eta kotsulta publikoko prozesuaren irekieraren inguruan, ingurumen-arloko organo eskudunari bidalitako jakinarazpena jasotzen du (**IA Eranskina**), baita jasotako iradokizun edo alegazioa eta honi emandako erantzuna ere (**IB Eranskina**). Azkenik, idatzi honen laburpen bat jasotzen da (**IC Eranskina**).

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA

IA ERANSKINA

HITZARTZE PROZESUKO INFORMAZIO ETA KONTSULTA- PUBLIKOAREN IREKIERAREN JAKINARAZPENA INGURUMEN- ARLOKO ORGANO ESKUDUNARI

I. zk.	Unitate Hidrologikoa	IBAIZABAL
	Ingurumen-arloko organo eskuduna	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)
	Informazioa helarazitako data	2015/12/03

Maria Uribe Guerendarain
Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia
Bizkaiko Foru Aldundia
Alameda Rekalde 30
48009 Bilbao (Bizkaia)

GAIA: Jakinaraztea “Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze prozesua – Ibaizabal Unitate Hidrologikoa” delako dokumentuari dagokion informazio eta kontsulta publikoaren prozedurari hasiera eman zaiola; Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren EAeko Barne Arroen eremuari dagokion hitzartze prozesuarekin lotuta.

ASUNTO: Comunicación de la apertura del procedimiento de información y consulta pública del documento “Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos - Unidad Hidrológica Ibaizabal”, relacionado con el proceso de concertación correspondiente a la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco.

Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren Plan Hidrologikoa onartzen duen ekainaren 7ko 400/2013 Errege Dekretuaren 15. artikulua araberan, indarrean dauden emakidetan emari ekologikoen erregimena ezartze aldera, Hitzartze prozesu bati ekingo zaio, Plangintza Hidrologikoaren Erregelamenduaren 18.3. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

De acuerdo con el art. 15 del Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, para la implantación del régimen de caudales ecológicos a las concesiones en vigor se desarrollará un Proceso de Concertación según lo dispuesto en el artículo 18.3 del Reglamento de Planificación Hidrológica.

EAeko Barne Arroen eremuan, Uraren Euskal Agentziari emandako eskumenen esparruan, Hitzartze prozesu hori abian jarri da eta, Plangintza Hidrografikoaren Jarraibidearen 3.4.6. paragrafoari jarraituz, informazioaren eta kontsulta-publikoaren urratsak jaso beharko ditu gutxienez delako prozesu horrek.

En el marco de las competencias atribuidas a la Agencia Vasca del Agua se ha iniciado, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco, dicho Proceso de Concertación, el cual, de conformidad con el apartado 3.4.6 de la Instrucción de Planificación Hidrológica, deberá abarcar, al menos, los niveles de información y consulta pública.

Lehenengo urratsari, informazioari alegia, dagokionez, eta emari ekologikoen erregimena ezartzerakoan ahalik eta zabalkunderik handiena lortzearen, Uraren Euskal Agentziak jendearentzat eskuragarri

Respecto al primer nivel, el de información, y con el objeto de conseguir la máxima difusión en la implantación del régimen de los caudales ecológicos, esta Agencia Vasca del Agua ha puesto a disposición del público en su página web la información relativa al



jarri du bere web- orrian Hitzartze prozesuari buruzko informazioa. Bertan bildu dira prozesua arautzen duten arau nagusiak, azterketa eta dokumentu teknikoak, bai eta "Dibulgazio dokumentua" deritzona ere, prozesua errazago ulertzen laguntzeko xedez.

Bigarren urratsari, kontsulta publikoari alegia, dagokionez, Uraren Euskal Agentziaren zuzendariaren 2015eko azaroaren 16ko Ebazpenaren bitartez, hasiera eman zaio Ibaizabal Unitate Hidrologikoan kokatuta eta Hitzartze prozesupean dauden ur-aprobetxamenduen kontsulta-publikorako aldiari.

Honen bitartez, kontsultarako aldiari hasiera eman zaiola jakinarazi nahi dizugu. (jendaurrean kontsultagai jartzeko aldiari) Horrenbestez, gorago aipaturiko 2015eko azaroaren 16ko Ebazpena argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hilabete batez dokumentazio hori guztia kontsultagai izango da Uraren Euskal Agentziaren ondorengo egoitzetan:

- Egoitza Nagusia. Orio kalea 1-3
01010 Vitoria-Gasteiz

- Mendebaldeko Kantauriar Arroen Bulegoa.
Uribitarte kalea 10
48001 Bilbao

Horrez gain, aipatutako dokumentazioa eskuragarri izango da Uraren Euskal Agentziaren orrialde elektronikoan

Proceso de Concertación incluyendo las principales normas que lo regulan, estudios y documentos técnicos, así como el denominado "Documento Divulgativo" cuya finalidad no es otra que facilitar su comprensión.

Respecto al segundo nivel, mediante Resolución de 16 de noviembre de 2015 del Director General de la Agencia Vasca del Agua, se ha iniciado un periodo de consulta pública en relación con los aprovechamientos de agua existentes sometidos al Proceso de Concertación ubicados en la Unidad Hidrológica Ibaizabal.

Por medio de la presente, se le comunica la apertura del mencionado periodo de consulta. A tal efecto, la documentación se podrá consultar desde el día siguiente a la publicación de la citada Resolución de 16 de noviembre de 2015, y por el periodo de un mes, en las siguientes sedes de la Agencia Vasca del Agua:


- Sede Central C/ Orio 1-3
01010 Vitoria-Gasteiz.


- Oficina de las Cuencas Cantábricas Occidentales. C/ Uribitarte, 10
48001 Bilbao

Además, dicha documentación estará a disposición pública en la página web de la Agencia Vasca del Agua.

www.uragentzia.euskadi.eus

Vitoria- Gasteiz, 2015eko abenduaren 3an




Ifigo Ansola Kareaga
Zuzendari nagusia/ Director General

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA

IB ERANSKINA

**ERAGINDAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKO ETA PERTSONA
INTERESDUNEK BIDALITAKO ALEGAZIOEN ETA HORIEI
EMANDAKO ERANTZUNEN BILKETA**

I. zk.	Espedientearen erreferentzia	---
	Alegatzailea	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)
	Unitate Hidrologikoa	Ibaizabal
	Alegazioaren sarrera-data	2016/02/12
	Alegazioaren irteera-data	2016/06/15

2016 OTS: 17
FEB: 17

SARRERA / ENTRADA	IRTEERA/SALIDA

Att. José M^a Sanz de Galdeano

PLANGINTZA ETA LANEN ZUZENDARITZA
DIRECCIÓN DE PLANIFICACIÓN Y OBRAS

GAIA: URAREN EUSKAL AGENTZIAKO
EGOITZA NAGUSIAN JASOTAKO
DOKUMENTAZIOAREN IGORPENA

ASUNTO: REMISIÓN DE DOCUMENTA-
CIÓN RECIBIDA EN LA SEDE CENTRAL
DE LA AGENCIA VASCA DEL AGUA

Bizkaiko Foru Aldundia

Diputación Foral de Bizkaia

Honekin batera doakizu 2016ko otsailaren 12an eta sarrera erregistroko 554/0758 zenbakiarekin jasotako txostena, emari ekologikoen prozesuari buruzkoa.

Adjunto remito informe recibido el 12 de febrero de 2016 con número de registro de entrada 554/0758 en relación al proceso de concertación de caudales.

Adeitasunez,

Atentamente,

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 16a

Vitoria-Gasteiz, 16 febrero de 2016



Josu Perea Arandia

JABARI PUBLIKOA KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



2016 OTS. 12
FEB.

SARRERA / ENTRADA	IRTEERA / SALIDA
559/0758	/

Tokia eta data / Lugar y fecha
Bilbo, 2016/02/10

Zure aipamena / Su referencia

Gure aipamena / Nuestra referencia
Expte 217/2015

Jasotzailea / Receptor
D. IÑIGO ANSOLA KAREAGA
DIRECTOR GENERAL
URA UR AGENTZIA AGENCIA VASCA
DEL AGUA
Orio, 1-3
01010 VITORIA-GASTEIZ

Gaia/Asunto: *Jakinaraztea " Emari ekologikoen erregimena ezartzeko Hitzartze prozesua- Ibaizabal Unitate Hidrologikoa" delako dokumentuari dagokion informazio eta kontsulta publikoaren prozedurari hasiera eman zaiola; Kantauri Ekialdeko Demarkazio Hidrografikoaren EAEko Barne Arroen eremuari dagokion hitzartze prozesuarekin lotuta./ Comunicación de la apertura del procedimiento de información y consulta pública del documento "Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos- Unidad Hidrológica Ibaizabal", relacionado con el proceso de concertación correspondiente a la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco.*

Goiburuan aipatzen den gaia dela eta, honekin batera bidaltzen dizut horri buruzko txostena.

En relación al asunto de referencia, adjunto le remito informe elaborado al respecto.

Adeitasunez, agur.

Atentamente

INGURUMENENKO ZUZENDARITZA NAGUSIA
LA DIRECCIÓN GENERAL DE MEDIO AMBIENTE

Haren Ordez/P.A. NEKAZARITZAKO ZUZENDARI NAGUSIA
LA DIRECTORA GENERAL DE AGRICULTURA
Sin./ Fdo.: Lucía Isla Llona



Sarrera/Entrada

10 FEB 2016

Irteera/Salida ...1647



ASUNTO: CONSULTA PÚBLICA DEL PROCESO DE CONCERTACIÓN PARA LA IMPLANTACIÓN DEL RÉGIMEN DE CAUDALES ECOLÓGICOS – UNIDAD HIDROLÓGICA IBAIZABAL. (IPN 2015-217)

1. – Antecedentes:

Con fecha 3 de diciembre de 2015 tiene entrada en el Departamento de Sostenibilidad y Medio Natural de la Diputación Foral de Bizkaia oficio por parte de URA (Agencia Vasca del Agua).

De acuerdo con lo establecido en el art. 15 del Real Decreto 400/2013, de 7 de junio, por el que se aprueba el Plan Hidrológico de la Demarcación Hidrográfica del Cantábrico Oriental, en el Reglamento de Planificación Hidrológica y en la Instrucción de Planificación Hidrológica, dentro de la citada demarcación y, en concreto, en el ámbito de las Cuencas Internas del País Vasco, la Agencia Vasca del Agua está llevando a cabo los trabajos necesarios para la implantación del régimen de caudales ecológicos previamente definidos en el propio Plan. Esta implantación se articulará a través de un Proceso de Concertación que se desarrolla por unidades hidrológicas. En este caso, se trata de la Unidad Hidrológica Ibaizabal.

2. – Situación y características:

Tal y como se menciona anteriormente se trata de la Unidad Hidrológica del Ibaizabal.

3. - Consideraciones:

Planes de Gestión de Especies: Varias masas del agua perteneciente a la Unidad Hidrológica del Ibaizabal como son las cabeceras del Ibaizabal y del Nervión están catalogados como Áreas de Interés Especial dentro del Plan de Gestión del Visión Europeo de acuerdo al *Decreto Foral 118/2006, de 19 de junio, por el que se aprueba el Plan de Gestión del Visión Europeo, Mustela lutreola (Linnaeus, 1761), en el Territorio Histórico de Bizkaia, como especie en peligro de extinción y cuya protección exige medidas específicas.* Así mismo, varios tramos del río Ibaizabal y del Nervión están catalogados como tramos a mejorar dentro del plan de gestión de la especie.




Por ello y en virtud de que se trata de un Área de Interés Especial se deberán tener en cuenta las directrices establecidas en el Plan de Gestión, especialmente la Directriz General 2.2.1. de donde se extrae textualmente lo siguiente: *Conservación y mejora activa de los cauces fluviales: Se entiende como conservación; el **mantenimiento del caudal**, su cantidad y calidad, del cauce y de sus taludes, y de la vegetación de ribera (árboles y arbustos) en el tramo de Dominio Público Hidráulico y su Servidumbre de Paso.*

A falta de una mayor determinación, ha de entenderse que el “mantenimiento del caudal” al que se refiere el citado plan de gestión del visón europeo, debe suponer el mantener unos caudales de agua suficientes para garantizar los recursos tróficos del sistema fluvial, la estructura y función del mismo durante todo el año, y fundamentalmente durante el periodo crítico reproductivo de la especie, entre el 15 de marzo y el 31 de julio.

Una reducción tanto en la cantidad como en la calidad de las aguas afectaría directamente a la población de visón europeo, especie que a día de hoy es el segundo mamífero más amenazado de Europa. Por lo tanto, el mantenimiento del caudal es necesario para la conservación del visón europeo.

Es por ello, que para cualquier actuación u obra derivada del proceso de concertación de caudales ecológicos será de aplicación el **artículo 9** de dicho plan que establece *la necesidad de una autorización previa para los casos en los que un proyecto implique la modificación de las características del hábitat de reproducción o refugio de la especie.*

Así mismo, se recuerda que varios tramos de los ríos Ibaizabal y Nervión se encuentran incluidos dentro de la zona de Registro de Zonas Protegidas como Zona de Protección Especial debido a ser Área de Interés Especial del Visión europeo.

<p>EL TÉCNICO SUPERIOR MEDIOAMBIENTAL</p>  <p>Fdo.: Nestor Zabala Madariaga</p>	<p>EL JEFE DE SERVICIO DE LA SECCIÓN DE BIODIVERSIDAD Y PAISAJE</p>  <p>Fdo.: Iñaki Benito Iza</p>
<p>EL JEFE DEL SERVICIO DE PATRIMONIO NATURAL</p>  <p>Fdo.: Antonio Galera Coletto</p>	

2016 EKA: 15

SARRERA / ENTRADA	IRTEEREA / SALIDA
	SS4/3224

Unai Marcos Gangoiti Ciscar
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
Bizkaiko Foru Aldundia
Alameda Rekalde, 30
48009 Bilbo (Bizkaia)

GAIA: Erantzun-txostena bidaltzea, "Emari Ekologikoen Erregimena Ezartzeko Hitzartze Prozesua Ibaizabal Unitate Hidrologikoan" delako dokumentuari dagokion informazio eta kontsulta publikoaren prozedurari hasiera eman zaion jakinarazteari buruzkoa.

ASUNTO: Informe de respuesta al escrito remitido en relación con la comunicación de la apertura del procedimiento de información y consulta pública del documento "Proceso de Concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos en la Unidad Hidrológica Ibaizabal".


Goiburuan aipatzen den gaia dela eta, honekin batera bidaltzen dizut horri buruzko txostena.

En relación al asunto de referencia, adjunto le remito informe elaborado al respecto.

Adeitasunez, agur.


Atentamente.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 10a



Iñigo Ansola

Zuzendari nagusia



Unai Marcos Gangoiti Ciscar
Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia
Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
Bizkaiko Foru Aldundia
Alameda Rekalde, 30
48009 Bilbo (Bizkaia)

ASUNTO: RESPUESTA AL INFORME EN RELACIÓN CON LA COMUNICACIÓN DE LA APERTURA DEL PROCEDIMIENTO DE INFORMACIÓN Y CONSULTA PÚBLICA DEL DOCUMENTO “PROCESO DE CONCERTACIÓN PARA LA IMPLANTACIÓN DEL RÉGIMEN DE CAUDALES ECOLÓGICOS DE LAS CUENCAS INTERNAS DEL PAÍS VASCO (UNIDAD HIDROLÓGICA IBAIZABAL)” (Ref.: APO-2015-0014)

Con fecha 12 de febrero de 2016 ha tenido entrada en esta Agencia Vasca del Agua un informe de esa Dirección General de Medio Ambiente en relación con la comunicación de la apertura del procedimiento de información y consulta pública del documento “Proceso de concertación para la implantación del régimen de caudales ecológicos de las Cuencas Internas del País Vasco (Unidad Hidrológica Ibaizabal)”.


En el escrito presentado se señala que varias masas de agua pertenecientes a la Unidad Hidrológica Ibaizabal (cabeceras del Ibaizabal y del Nervión) están catalogadas como Áreas de Interés Especial dentro del Plan de Gestión del Visión europeo estando incluidas dentro del Registro de Zonas Protegidas como Zonas de Protección Especial.

En relación con estas zonas se indica que se deberá tener en cuenta las directrices establecidas en el citado Plan de Gestión. Entre ellas, la denominada “Conservación y mejora activa de los cauces fluviales” que incluye el mantenimiento del caudal necesario para la conservación del visón europeo y el artículo 9 que establece la necesidad de una autorización previa para los casos en los que un proyecto implique la modificación de las características del hábitat de reproducción o refugio de la especie.

Una vez analizadas las cuestiones planteadas en su escrito cabe señalar que, de acuerdo con la información cartográfica disponible, no nos consta que haya ninguna Área de Interés Especial del Visión europeo en el ámbito intracomunitario de la Unidad Hidrológica Ibaizabal, ámbito objeto del presente Proceso de Concertación.

En Vitoria-Gasteiz, 9 de junio de 2016


Aitor Beldarrain Uribe
BAIMEN, EMAKIDA ETA ISURKETA ARLOKO ARDURADUNA
RESPONSABLE DEL ÁREA DE AUTORIZACIONES, CONCESIONES Y VERTIDOS.


Josu Perea Arandia
JABARI PUBLIKOA KUDEATZEKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE DOMINIO PÚBLICO

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA

IC ERANSKINA
JASOTAKO ALEGAZIO ETA IRADOKIZUNEN ETA EMANDAKO
ERANTZUNEN LABURPENA

Zk.	Alegatzailea	Espedientearen Erreferentzia	UH	Data.- Alegazio/iradokizunaren laburpena	Data.- Bidalitako erantzuna
1	Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusia (BFA)	---	Ibaizabal	<p>2016/02/20.- Ibaizabal UHko hainbat ur-masa (Ibaizabal eta Nerbioi ibaien goi-arroak) Biso Europarraren Kudeaketa Planaren arabera, Interes Bereziko Eremu bezala katalogatuta daudela adierazten da eta Eremu Babestuen Erregistroan Babes Bereziko Eremu bezala txertatuta dagoela.</p> <p><i>(Alegazio hau 2015/12/03an Agentzia honek ingurumen-arloko organo eskudunari Hitzartze Prozesuan, Ibaizabal UHrentzat garatutako informazio eta kontsulta publikoko faseen irekierari buruz bidalitako jakinarazpenaren erantzuna izan da).</i></p>	<p>2016/06/15.- Babes Bereziko Eremu horiei dagokienez, Biso Europarraren Kuadekata Planean ezarritako arauak kontuan hartu beharko direla adierazten da; bereziki, "Ibai-ubideen kontserbazio eta hobekuntza aktiboa" delako zuzentaraua eta Planaren 9. artikulua. Aipaturiko zuzentarauak, biso europarraren kontserbaziorako beharrezko emaria errespetatu behar dela jasotzen du. Planaren 9. artikulua, berriz, espezieak ugaltzeko edo babesteko erabiltzen duen habitataren ezaugarriak aldatzea eragingo duen jardueren kasuan, alde aurreko baimenaren beharra ezartzen du.</p> <p>Hala ere, idatzia aztertu ondoren, informazio kartografikoaren arabera, Hitzartze Prozesu honen xede den Ibaizabal UHko EAEko Barne Arroen Eremuan, biso europarraren Interes Bereziko Eremurik ez dagoela ondorioztatu da.</p>

II. Eranskina. Parte-hartze aktiboa

II. Eranskinean aprobetxamendu bakoitzaren kasuan garatutako parte-hartze aktiboko prozesuaren laburpena jasotzen da. Prozesu honen emaitzazko dokumentazio guztia ondorengo eskema jarraikiz azaltzen da:

- Hasierako ondorioak.
- Titularrekin egindako bilerak.
- Eztabaidagaien azalpena.
- Lortutako akordioak (dagokien kasuetan).

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA

IIA ERANSKINA

APROBETXAMENDU BAKOITZAREN KASUAN GARATUTAKO PARTE-HARTZE AKTIBOKO PROZESUAREN LABURPENA

IBAIZABAL UNITATE HIDROLOGIKOA

ZK.	ESPEDIENTEA	ERABILERA	TITULARRA
I	A-B-2011-0559	Industria-erabilera eta hiri-hornidura	Aguas de Asua, S.A.

A.- Hasierako ondorioak.

Eskuragarri zegoen informazio guztia kontuan hartuta, B taldeko aprobetxamenduen gaur egungo ur-erabilerak KEDPHn ezarritako EEEden bateragarriak direla egiaztatu da.

B.- Titularrekin egindako bilera(k).

Parte-hartze aktiboko prozesuaren esparruan hainbat bilera egin dira B taldeko aprobetxamenduen titularrekin, hauei Hitzartze Prozesuaren inguruan lortutako hasierako ondorioak azaltzeko helburuarekin, eta dagokien kasuetan, KEDPHn zehaztutako emari ekologikoen errespetuaren eta egungo ur-erabileraren arteko bateragarritasuna lortzeko akordio desberdinak adosteko asmoz. Kasu honetan, ondorengo egunetan burutu dira bilera hauek:

- 2016/07/14.

C.- Eztabaidagaien azalpena.

2016/07/14.- Titularrekin egundako bileran URAk Hitzartze Prozesuari loturik, aprobetxamendu honi dagozkion alderdien berri eman zuen, baita Agentzia honek egindako azterlanean lortutako hasierako ondorioen berri ere.

Ondorio hauek, industria-erabilerarako eta hiri-hornidurarako den A-B-2011-0559 aprobetxamendua KEDPHn ezarritako EEEden bateragarria dela islatzen dute. Hala, bileraren hurrengo egunetik hasita hilabeteko epea eman zitzaizen iruditzen zitzaizkien alegazio edo iradokizunak aurkezte aldera.

D.- Lortutako akordioak.

Ez dagokio